




Euskadi %2,2 hazi zen lehen hiruhilekoan

EAEko ekonomiaren hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustaten kontu ekonomikoen araberara, EAEko BPGaren urte arteko hazkunde tasa %2,2 izan zen 2023ko lehen hiruhilekoan. Hiruhilekoen arteko terminoetan, hazkundera %0,4koa izan zen, aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino hamarren bat txikiagoa.

Enplegua %1,5 handitu zen urte hasieran

Enplegua kontu ekonomikoetan

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.


Kontu ekonomikoen arabera, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %1,5 hazi zen 2023ko lehen hiruhilekoan. Horren ondorioz, 15.000 lanpostu berri sortu ziren aurreko urteko aldi berarekin alderatuta eta milioi bat enplegu baino gehiago daude jada ekonomiaren guztizkoan.



Txikizkako merkataritza %5,7 gehitu zen EAEn

Txikizkako merkataritza EAEn

Urte bakoitzeko martxoa. Indizea




Iturria: INE.

Martxoan, Euskadiko txikizkako merkataritzaren salmentak %5,7 gehitu ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, 2022. urtearen amaieran erregistratzen hasi zen balio positiboekin jarraitzen du. Era berean, txikizkako merkataritzako enpleguak hazkunde positiboak izan zituen beste hilabete batez (%2,0).

Azalera handietako salmenta %2,6 gutxitu zen

Azalera handietako salmentak

Urte bakoitzeko martxoa. Indizea



Iturria: Eustat.

Azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %2,6 jaitsi ziren martxoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Beherakada hori elikaduraren bilakaerak eragin zuen (-%5,3), gainerako produktuen salmentak %3,5 gora egin zuen bitartean. Halaber, enpleguak (%5,8) goranzko joerarekin jarraitu zuen.